

## Terrorismoaren zerrendan sartuko ote du Europak Israel?

**GOLKOKO LEHEN GERRAN**, AEB buru, nazioarteko koalizio militarrek Irak inbaditu zuenean, amerikarrek ospetsu egin zuten "Irak Erdi Arora itzularaziko dugu" esaldia. Txikizioaren tamainak egoera hori ekarri zuen neurri batean. Nazioarteko ondorengo blokeo ekonomikoa itzela izan zen, hamarkada batean ehunka mila hildako eraginez, gehienak haurrak, gerran baino askoz gehiago. Herrialde arabiarretan aurreratua eta erreferentziala zena, atzeratuenean artean geratu zen. Irakeko laizismo panarabiarra Iraneko islamismoaren aurrean baliagarria zen bitartean, AEBk Irak lagundu zuen 80ko hamarkadako Iran-Irak gerran. Orduz geroztik, herensuge amerikarren su iraunkorrak kiskalia utzi du Irak.

Libano ere herrialde garatua zen, Ekialde Hurbileko Suitza deitzen zuten. Gerra Zibilek eta Israelen erasoek behin eta berrito txikitu dute materialki. Palestinarrek ez dute beren burua garatzeko antolamendurik lortu izan, 1967tik NBEk Palestinako Estatuaren sorrera agintzen badu ere, AEBek eta Israeliek –Europako Batasunaren laguntzarekin– behin eta berriz oztopatu dute erakundearen mandatu.



Gazari egindako erasoekin Erdi Arora baino Harri Arora itzularazi ditu Israeliek bertako palestinarrak. Ondoren, su-etena behar beste luzatzen bada, berreraikuntza lana hasiko da. Europako Batasunak milioika euro bideratuko ditu bere berreraikuntza lanetara eta bere zurikeria garbitzera eta, konponbiderik lortu ezean, bere sorreratik gerra egoeran bizi den Israeliek behar denean berriz txikituko ditu behar diren bazterrak.

Noiz arte, ordea? Estrategia horrek urteak eta hamarkadak iraun ditzake, baina ezin da etengabe luzatu. Iran moduko batek lortuko du halako batean arma nuklearra eta orduan edo Israeliek amore emango du edo eskualde osoa lehertuko da. Edo herriarabiarren matxinadek gobernuak berenganatuko dituzte eta... Ez da

hegemoniarik betirako, historiak behin eta berriz erakusten du hori.

Baina AEBen erabateko babes amaitu barik, Israeliek ez du jarrerarik aldatuko. Europako Batasunak, gaur gaurkoz, ez du ez indarririk ez gogorik AEB eta Israel presionatzeko. Aldaketarako ametsik bada egunotan, baina hutsala egia esan, arrazoizkoagoa da pentsatzea Barack Obamaren esperantza izpi hori laster itzaliko dela Gazako hondakinen artean.

Gazako herritarrak txikitu ditu Israeliek, Hamasen egoitzak, Palestinako Aginte Nazionala ere bai bide batez, baina gorrotoa eta erresistentziarako hazia akuilatzen jarraitzen du, arabiarrek erabat zatituta daude baina nazio bakarraren kontzientzia oso hedatua dago haien artean eta Israeliek ezin dezake luzaro iraun gerra eta zampaketa zabuan kulunkatzen. Europako gobernuak, bitartean, hau bai, proportziorik gabeko biolentzia hau lasai irents dezakete, Israelgo armada eta gobernu inongo zerrenda terroristetan sartu barik, Gazako gerra krimenak epaitu barik, su-etena bultzatu bai baina hurrengo erasoari ere atea irekitu dezake. Israelen defentsarako.



**Alfonso Sastre**  
EMMANUEL KANTEN  
AZKEN EGUNAK

**Aristides Vargas**  
HARITZAREN  
AZALERA ZEHATZA

Yorick Liburudendan edo [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com)  
eskura dezakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao  
Tel: 944 795 287 / [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) / [info@libreriayorick.com](mailto:info@libreriayorick.com)